

JOAN DEN URTEKO ANTXOAREN ERDIA BAINO GUTXIAGO SARTU DA HEGOALDEKO PORTUETAN AURTENGO KANPAINIAN

# Kostera negargarria

■ Hego Euskal Herriko portuetan antxoaren kanpaina «negargarria» izan da. Hori izan da Bizkaiko eta Gipuzkoako kofradien federazioek azpimarratu dutena. Harrapatutako antxoa kopurua izugarri jaitsi da joand en urtetik hona: Gipuzkoan % 67 eta Bizkaian % 52.

Iñigo Olabarri / Bilbo

IAZ Bizkaiko portuetan 6.513.000 kilo antxoa sartu zen, aurten 3.078.000 —ekainaren 15eko datuen arabera—. Gipuzkoan iaz 7.355.226 kilo jaso zituzten eta aurten 2.426.342. Datuek argi adierazten dute beherakada: Gipuzkoan ia % 68 jaitsi dira harrapaketak eta Bizkaian % 52.

Esteban Olaizola Gipuzkoako Kofradien Federazioko lehendakaria kezkatuta dago emaitza horiek direla eta. «Balorazioa negargarria da. Gipuzkoan % 60 antxoa gutxiago sartu da. Oraindik ere kostera amaitzeko dagoen arren, esan genezake mila milioi pezeta gutxiago sartu direla gure portuetan antxoarekin». Duela urte biko datuak berrikusiz gero, are okerragoak dira emaitzak.

Antxoa ohiko lekuetatik kanpo bilatu behar izan dute aurten. «Bazegoen antxoa, antxoa txikia —neurrien barruan, baina txikia—, baina beste arrainekin nahastuta zegoen. Orduan beste leku batzuetara joan gara antxoa bila», argitu du Olaizolak.

«Argi geratu da arrantzan pelagikoekin dabilentzat ere ez dela antxoarik egon. Lehen guk urteko hiru hilabetetan egiten genuen arrantzan, orain, ordea, maiatzean bakarrik atera gaitzke. Badaramatzagu kostera batzuk antxoa txikia harrapatuz eta hori pelagikoek urte guztian dena suntsitzen dutelako da» esan du.

Olaizolaren ustez, arrantzaleen artean badago baliabide hori desagertuko den beldurra. «Antxoak lau urteko bizia du, baina antxoa txiki asko hiltzen da. Beste arrain batzuen bila joanda



Antxoa kaxa gutxi bete ahal izan dituzte aurten Hegoaldeko baxurako arrantzaleek.

XOUSE SIMAL

ere, erabiltzen diren tresna batzuen eraginez antxoa ere hiltzen da. Beste arrazoi batzuk ere egongo dira eskasia hori azaltzeko, baina, gure ustez, arrazoirik garrantzitsuen erabiltzen diren tresnetan dago». Olaizolak arrantza moduei buruzko ikerketak eskatu ditu. «Enpresari batek unti bat egiteko diru asko gastatzea ez da nahikoa arrazoi berak nahi duen moduan arrantza egiteko. Ikertu egin behar dira arrantza teknikak. Teknika

bakoitzak nolako eraginak dituen jakin ahal izateko».

«Itsaso barruan zer gertatzen den ez dago jakiterik» • Iñaki Zabaleta, Bizkaiko Kofradietako lehendakaria, ildo beretik mintzatu da. Kostera oso txarra izan dela azpimarratu zuen, datuak «oso kezagarritzat» jo zituen. Emaitza txarren arrazoiaren gainean ez du faktore argirik ikusten Zabaleta. «Batek daki zergatik gertatu den hori. Lehorrean jakiten da:

harria jausi da, edo uholdeak izan dira, edo ez du euririk egin. Baina itsaso barruan gertatzen dena ez dago jakiterik».

Andres Uriartek, AZTIko biologoak (Arrantzuarekiko Zientzia eta Teknika Irakaskunde), «antxoaren banaketa atipikoa» gertatu dela adierazi zuen. Ohiko arrantza tokietan neurri txikiko antxoa baino ez dute aurkitu. Horren arrazoiak ez dakizkitela adierazi zuen Uriartek, «orain zer gertatu den jakitea da gakoa»,

«Ez dute antxoa heldua aprobetxatzen»

Apprecok, arrantza eraginkorraren aldeko arrantzale elkartek, adierazi duenez, «arrantza teknika tradizionala dela eta antxoa helduak zahartuta hiltzen dira Bizkaiko Golkoan, aprobetxatu gabe». Apprecokoen ustez, baxurako untzien tekniken gabezia dela eta, ez dira 80 metrotik 120ra bitartean zeuden antxoak —arrantzak jartzera kostara hurreratzeko unean erraz harrapa zitezkeen antxoak— harrapatzeko gai izan. Une horietan, ordea, pelagikoak portuetan zeuden arrantzarako baimenik gabe. Gauzak horrela, Frantziak eta Espainiak 1992an hitzartu zituzten akordioak dese-gokiak direla azpimarratu dute.

Apprecok adierazi duenez, ez dituzte onartzen baxurako untziek pelagikoei egozten dizkietenak. «Pelagikoek akordioak errespetatu dituzte eta udaberrian antxoa arrantzaguneak. Haien zatikostera negargarria izan bada, armadoreen erruagatik izan da, «ez baitituzte untiak teknika egokiarekin hornitu».

Gauzak horrela, sare tradizionalarekin harrapatu ez dituzten antxoek hiru urtekoak ziren, Apprecokoen diotenez, «espezie honen bizi-raupena horixe da, gainera. Horrek esan nahi du antxoa hori arrantzarako eta kontsumorako galdu egingo dela».

## Ardo enpresen salerosketa ugariak espero ditu B&Bk

■ Errioxako enpresa nagusi bilakatu da merkatuan

J.A. / Logroño

ARDOAREN merkatua hobekuntza nabarmena izaten ari da azken urteetan. Lurralde ekoizletan ezezik, bezero diren lekuetan ere ardoaren kontsumoa gorantz doa etengabe. Hori dela eta, ardo-gintzako enpresen artean mugimendu handiak izatea espero dute Bodegas y Bebidas (B&B) enpresako arduradunek. Horren adierazle Codorniu taldeak Bodegas Bilbainasen kapitalaren gainean aurkezturiko akzio eskaintza da, bai eta CVNE enpresa burtsara irteko asmoa ere.

B&B, kapitalaren % 65 BBVren eskuetan duen Donostiako konpainia, Errioxako ardo ekoizle eta

merkatuzaile nagusia da, Campoviejo eta erosi berria duen AGE upeleategien jabe delarik. Horiez gain, Espainiako beste zazpi jatorri izeneko ardoak merkatu-ratzen ditu, Nafarroako Vinicola Navarreakoak barne. Aurtengo ekitaldirako Dueroko Erriberako jatorri izeneko upeleategi bat erosi edo sortzeko asmotan dabilela adierazi du Jose Domingo Ampuero B&Bko presidentek.

Konpainiako akziodunek atzo Donostian egindako batzarrean, berregituraketa prozesua itxita daukela azpimarratu zuen Ampuero. Irabaziak % 20 gehitu zituen, 1.189 milioi irabazi arte. Aurtengo ekitaldirako % 30eko hazkundera espero du B&Bk.

### Hitzaldia

David Hutchins hitzaldia,  
David Hutchins International  
Group-en presidentea.

### Conferencia


Conferencia de Mr. David  
Hutchins, presidente del David  
Hutchins International Group

Lehiakortasuna giza faktorean oinarritua  
eta pertsonen partaidetza

La competitividad basada en el factor humano  
y la participación de las personas



**EVE** | Ente Vasco  
de la Energía



1997ko ekainak 25,  
asteazkena,  
20:00etan  
Bilboko Burtza,  
José M<sup>a</sup> Olabarri, 1,  
kalea. Bilbo

Miércoles,  
25 de junio de 1997,  
a las 20 horas  
Bolsa de Bilbao,  
c/ J. M<sup>a</sup> Olabarri, 1,  
Bilbao